

UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAK PROTESTA EGITEKO ESKUBIDEA DEFENDATZEN DU ETA FAKULTATE BATZUETAN IZANDAKO LISKARRAK DEITORATZEN DITU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2025eko martxoaren 14a – Martxoaren 13ko ikasle mobilizazioaren testuinguruan gertatutako gertaeren aurrean, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak bere jarrera argitu nahi izan du.

Ikasle Kontseiluak martxoaren 3an onartu zuen ikasle talde batek eskatutako etenaldi akademikoa, horrek jardura akademikoa eten egingo zela egun horretan esan nahi zuen. Hala ere, campus ezberdinetan egin ziren mobilizazioak eta zenbait fakultatetan izandako gertakariak ez dira Ikasle Kontseiluak antolatutak edo deitutak izan.

Ikasle Kontseiluak ikasleek mobilizatzeko eta unibertsitate-eremuan beren aldarrikapenak adierazteko duten eskubidea defendatzen du. "Ikasle protestak betidanik izan dira hezkuntza publikoa hobetzeko eta gure eskubideak bermatzeko funtsezko tresna", adierazi du UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko presidentek, Iñigo Ugedok. "Baina hori ezin da nahastu guztiona den unibertsitateari kalte egitearekin. Unibertsitatea guztiona da, eta gure ardura da zaintzea".

Kontseiluak deitoratu du mobilizazioen testuinguruan unibertsitateko azpiegituretan kalteak izan direla, eta azpimarratu du espazio horiek zaintzea funtsezkoa dela ikasle komunitatearen ongizaterako. "Ikasle Kontseiluak beti defendatu ditu mobilizazio baketsuak eta elkarriketa aldaketarako tresna gisa. Aldarrikapenak errespetutik eta erantzukizun kolektibotik eraiki behar dira", gehitu du Ugedok.

Kontseiluak ikasleen baldintzak hobetzeko eta unibertsitate publiko, irigarri eta inklusibo baten alde lan egiteko elkarriketaren eta lankidetzaren aldeko konpromisoa berretsi du. "Funtsezkoa da aldarrikapenak entzutea eta kontuan hartzea, eta horretan lanean jarraituko dugu", ondorioztatu dute.

UPV/EHUko Ikasle Kontseilua
Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

<https://www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua>